# encuEntros 2025
## arte joven arte gaztea

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · AGENDA 2030

Instituto Navarro de la Juventud · Nafarroako Gazteriaren Institutua

## PROPOSAMENAK AURKEZTEA

**APIRILAREN 15etik - MAIATZAREN 15era**

### HAUTAKETA
**Ekaina.**
Gehienez 6 proposamen modalitate bakoitzeko.

### TUTORETZAK ETA JARRAIPENA
Hautaketatik jaialdira.

### JARDUNALDIAK
**Irailaren 6 eta 7an.**
Iruñea. Artista gazteen topagunea, tailerrak...

### JAIALDIA
**Urriaren 23tik 26ra.**
* Proiektuen aurkezpena jendaurrean, modalitate bakoitzari egokitutako formatuan *(Huarte Arte Garaikideko Zentroa).*
**Urriak 16 eta 17.**
Kontzertuak *(Iruñea).*
2 proposamen nabarmenen hautaketa modalitate bakoitzeko.

** Eskakizun teknikoak eskura dauden baliabideetara egokitu beharko dira.*

## SARIAK

- Eskudirutan:
  **1000€ hautatutako** proiektuak.
  **1000€ finalistak**.
- Profesionalen **tutoretza eta jarraipena**.
- Esperientzia paregabea. **Topaketa** beste artista gazte batzuekin.
- Zure obra **zabaltzea.**
  Ikus-entzunezko erregistroa.

## BALDINTZAK

- **14 eta 30 urte** bitarteko. **Modalitate** bakar **batean aurkeztu**.
- **Nafarroan bizitzea** EDO Nafarroan jaio izana eta ***izaera zibil forala*** izatea.

* *Taldeen edo kolektiboen kasuan: % 33k gainditu ahal izango du adina edo Nafarroatik kanpokoak izan ahalko dira.*
*Eskabidea sinatzen duen pertsona ordezkaritzat joko da.*

## ESKAERA

- ONLINE IZEN-EMATEA:
  ***Navarra.es***:
  GAKOAREKIN
  Ziurtagiri Digitalarekin
  NAN Elektronikoarekin
- PERTSONAKO IZEN-EMATEA:
  **NGIn**
  *(Yanguas y Miranda kalea 27, behea, Iruña)*
  ***Nafarroako Gobernuko*** edozein ***erregistro-bulegotan***, edo 39/2015 Legeak ezarritakoetan.

## DOKUMENTAZIOA

01. ***Izena emateko formularioa***
02. Artistaren **NANaren edo AIZaren fotokopia** (taldeen kasuan, pertsona guztiena).
03. **Erroldа-ziurtagiria edo Foru Egoera Zibilaren ziurtagiria** (hala badagokio).
04. **PDF** ***"DOSIERRA"***, modalitatearen araberako edukia. Obra edo proiektua ulertzen lagunduko duten beste material batzuk atxiki ahal izango dira (15 orr. gehienez).
05. **Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera**.

* Aukerakoak: Argazkia | CV artistikoa

## MODALITATEAK

### ARTE ESZENIKOAK
Antzerkiaren, dantzaren, performancearen, zirkuaren eta musika esperimentalaren esparruetako garapenean dauden proiektu, muntai edo obrak, edo lengoaia eszeniko garaikideekin eta arte biziekin lotutako edozein proposamen.

***ZURE DOSIERRAK HURRENGOA IZANGO DU***

01. Lanaren laburpen laburra: Sinopsia, lanaren ideia edo kontzeptua, ikerketa-lerroa...
02. Fitxa artistikoa: Kideak, antzezleak, dramaturgia, zuzendaritza.
03. Fitxa teknikoa: Behar teknikoak, behar espezifikoak, iraupena, beharrezko espazioa, tresnak (baleude).
04. Proiektua Interneten ikusteko esteka edo fitxategia, edo bideo edo MP3 grabaketa.

### ARTE PLASTIKOAK ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK
Proiektuak edo piezak: pintura, eskultura, grabatua, argazkia, bideoartea, performancea, zinema, instalazioa, teknologia berriak, edo modalitate honetatik sortutako edozein teknika edo formatu.

***ZURE DOSIERRAK HURRENGOA IZANGO DU***

01. Proiektuaren/ piezaren laburpena.
02. Fitxa teknikoa: izenburua, neurriak, iraupena, formatua, muntatzeko jarraibideak eta behar espezifikoak, beharrezkoa izanez gero..
03. Proposamenarekin zerikusia duten edo aurretik egindako lanen irudiak, proiektua errazago ulertzeko (bideoen kasuan, jarri loturak) (gehienez 15 irudi)

### DISEINUA
Proiektuak, piezak edo bildumak: janzkera, osagarri eta ehungintzakoak; barnealde, espazio, kanpoalde eta paisaietakoak; grafikoa, editoriala eta publizitatea; industria eta produktukoak; animaziokoak eta interaktiboak eta egungo diseinuari lotutako beste edozein formatu.

***ZURE DOSIERRAK HURRENGOA IZANGO DU***

01. Aurkeztutako proiektuaren motibazioari, ekimenari eta helburuari buruzko arrazoiketa.
02. Proiektua ulertzeko deskribapena, irudiak eta azalpena.
03. Proiektuaren azalpen-proposamenari buruzko fitxa tekniko xehatua, deskribapen eta zirriborroekin.
04. Obra ikusteko estekak jar daitezke.

### LITERATURA
Poesia, narratiba, saiakera, ez-fikzio, antzerki, zinema-gidoi, komiki, album ilustratu edo egungo literaturari lotutako beste edozein generotako testuak, liburuak edo proiektuak.

***ZURE DOSIERRAK HURRENGOA IZANGO DU***

01. Testu osoa (Times New Roman letra-motaz, neurria 12. 1,5eko lerroartea).
02. Liburu ilustratuen, komikien edo bestelako ikusizko modalitateen kasuan, fitxategi osoa.

### MUSIKAK
Musika proiektuak, bakarlari edo kantautore gisa, edo edozein estilo eta joerako musika-banda edo -talde gisa.
Talde edo musikari bakoitzak gutxienez 20 minutuko errepertorio originala izan beharko du, musikaren eremutik sortutako edozein musika- edo soinu-formatutan.

***ZURE DOSIERRAK HURRENGOA IZANGO DU***

01. Proiektuaren fitxa teknikoa: kideak, tresnak, behar espezifikoak, etab.
02. Gutxienez 3 abestiren grabaketa mp3 formatuan.
03. Bandaren, taldearen edo bakarlariaren irudia.

### + INFO
Oinarri osoak eta informazio gehiago (hautaketa-irizpideak, etab.): *https://www.juventudnavarra.es/eu/2025-arte-gaztearen-topaketak*

Kontsultak hemen:
*encuentros@navarra.es*

848 427 841

***ERANTSI IRAUNGITZEN EZ DIREN ESTEKAK***